



III RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

AZKEN ERABAKIA

III. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria epaitzeko xedez Andoaingo Udalak izendatutako Epaimahaiak, M. Pilar Collantes Ibáñez, Andoaingo Alkatea eta mahaiburua dena, Jesus Etxezarraga Zuluaga, Elixabete Garmendia Lasa, Josserra Garzia Garmendia, Josemari Otermin Urtizberea eta idazkari lanetan eta, beraz, hizpidez baina hautespiderik gabe jardun duen Jon Unanue López-ek osatu duten Epaimahaiak alegia, honako azken erabaki hau ezagutzera ematea akordatu du:

1.- Aurtengo edizioan aztertutako sekzio eta lanei dagokienez esan, lehenengoz eta behin, "herrietako aldizkariak" atalean berrogeitamabost idazlan, "baloraziozko kazetaritza" atalean bederatzi artikulu eta "erreportaia" izeneko atalean hogeitabi lan aurkeztu direla. "Sekzioa" izeneko atalean, berriz, hogeitairu aldizkari eta egunkarietako ehun eta hirurogeitamazazpi sekzioen azterketa egin da hirugarren sari honetan.

2.- Aurtengoa burutuz "Rikardo Arregi" Kazetaritza Saria bere hirugarren ediziora iritsi da. Hiru urte hauetan aurkeztutako, aztertutako eta saritutako lanek azaldu duten kalitatearen argitara Epaimahai honen uste eta iritziz garbi asko esan liteke euskarazko kazetalgintzak eduki dezakeela etorkizun sendo eta erabakiorrik euskararen erabileraren normalkuntzarako gure herriaren ahaleginaren baitan. Kazetaritzak euskaldunon hizkuntza eta gizarte-bizitzan eraginik izango badu, ordea, ezin dugu ahaztu euskarazko kazetalgintzan hizkuntzaz egin litekeen normalkuntza eta zabalkunde lanaz gain ezinbesteko ga-

rrantzia izango duela kazetaritza ihardun horren kalitatea eta irismen soziala garantizatzea eredu modernu eta prestuko euskal kazetalgintza batez. Eta asko da, oraindik ere, orohar ildo horretan barrena jorratu beharrekoa. Erdal hizkuntzetako prentsa idatziaren baitan leihak eta norgehiagokak gero eta indar eta baliabide haundiagoz gertutzen ari diren une honetan euskarazko kazetalgintzak bere aurrean etorkizuneko erronka haundia izaki, eredu baliagarri eta etekin garbikoak eragin nahi ditu "Rikardo Arregi" Kazetaritza Sariak. Zentzu horretan, lehen hiru edioziotan saritutako lanak, zalantzarik gabe, euskarazko kazetalgintzan jorratu beharreko ihardun normaldu eta prestuaren lekuko eta eredu dira, eta ihardun horretan, merezimendu propioz, goren-goreneko lan eta erreferentzi.

3.- Euskarazko kazetalgintza egunetik egunera bere esparrua gero eta opa-roagoki lantzen ari da, eta hori horrela izanik ezinbesteko gertatu zaio Epaimahaiari hurrengo urteko edizioari begira Saria arautzen duten oinarrien gaineko hausnarketa egitea. Lehen hiru edizio hauetan "Baloraziozko Kazetaritza", "Erreportaia" eta "Herrietako Aldizkariak" ataletan Epaimahaiak bere iharduna egileek beraiek aurkeztutako lanetara mugatu du, horretara behartzen bait zuten erizpide egokiz "Rikardo Arregi" Kazetaritza Sariaren oinarriek. "Sekzioa" atalean, berriz, bere esku egon da egunkari eta aldizkarietan argitaratzen diren euskarazko sekzio guztien gaineko azterketa eta balorazioa eginez Saria erabakitzea. Horrenbestez, bi lan prozedura jarraitu ditu Epaimahaiak Sari honen lau ataletako erabakiak hartzeko. Aipatu baldintzak, ordea, ez die lehen hiru edizio hauetan ustegabeko eragozpenik ekarri epaimahaikideei sariak erabakitzean, eta ez du Epaimahaiak bere onespenerik merezi zukeen ezer ezinbestez saritu gabe bazterrean utzi izanaren inolako gogo-zimikorik; eta hori, esan bezala, aurkeztutako lanez Sariak mailarik gorenenetara jo duelako.

Esanak esan, Epaimahaiak egoki eritzi dio Andoaingo Udalari Saria arautzen duten oinarrien gainean aldaketak egin ditzan proposatzeari, hurrengo edizioan "Sekzioa" atalarekin batera "Baloraziozko kazetaritza" eta "Erreportaia" ataletako hautaketa lana ere gera dadin epaimahaikideon esku, idazle edo egileak berak artikulua eta idazlanak aurkeztu beharrik izan gabe. Baldintza eta muga hori baztertuz, Sariaren irismena osoro hedatuko da eta saritutako lanek berezko dituzten duintasun eta merezimenduetan ez dute baldintza horren itzalik jasan behariko. Askatasun horrek, ezpairik gabe, behin-betirako arnasberria ekarriko dio Andoaingo Udalak Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz antolatutako Sariari.

4.- Orain, egiegun behingoz aurtengo edizioan saritutakoei ekitaldi hone-tan dagokien lehentasunezko tokia. "Rikardo Arregi" Kazetaritza Sari-ko Epaimahaiak lehen ediziotik hasita sariak erabakitzerakoan izan duen xederik nagusia euskarazko kazetaritza prestu eta modernoa sustatzearen eredugarri litzekkeen lanak saritzea izan bada, aurtengo sariak urtez-urte ondutako maila garaia bere hortan finkatu dute.

5.- Bestetik, eta urtero gogorarazi nahi izaten dugun erizpide bati helduz, lau ataletako sariak erabakitzerakoan, huts-hutsik idazlanen eta sekzioen ka-zetal balioa hartu da kontuan, beste edonolako kontsiderazioaren gainetik eta aurrerago aipatzen den beste zenbait erizpideren kalterik gabe. Beste hitzetan esanda, prentsa normalduan edo, agian hobeto esanda, euskarazko kazetari-tza normalduan inolako homologazio arazorik gabe leku propioa izango lukete-nak saritu dira.

6.- Honaho hau da, guzti hori kontutan hartuta sariei dagokienez Epaima-haiak ahobatez bere egiten duen erabakia:

7.1. "Herrietako aldizkariak" ataleko saria, 200.000 pezetaz hornitutakoa. Aipatu erizpideez gain, atal honetako saria ematerakoan erabakiorra izan da egileak lanerako aukeratutako gaia mundu zabalean hain oihartzun haundikoa izanik, herri baten ikuspegi eta herritar gazte baten zirkunstantzi pertsonaletara ekarriz egileak egin duen kazetal tratamendu sakon eta hurbila, eta, bidebatez, lan idatziaren estilo zaindu eta begiratua. Horrela bada, garrantzi handia eman zaio saritutako idazlanaren gaia hedapen zabalagoko prentsan neurri bateraino jorratutakoa izan arren, egileak irakurle herritarrei hurbilago-tik eskaini nahiean mamitu duen lan osatu, gertu eta naturalari.

Saritutako idazlana: "**Txomin Pineda, Berea ez den gerran**", Bergarako "**Berri-gara**" astekarian 1.991ko urtarrilaren 25ean argitaratua.

Autorea: **Jon Andueza Altuna**.

7.2. "Sekzioa" ataleko saria, 400.000 pezetaz hornitutakoa. Kasu honetan, saritu beharrekoa "mailarik altuena lortu eta gorde duen sekzioa" izan behar dela diote, hitzezitz, Andoaingo Udalak ezarritako oinarriek. Bada, aurten, sekzio irabazleak mailarik altuena lortu eta gorde duela adierazteaz gain, garbi esan genezake bere berezkotasunetan urtez luzez gorde duela lortutako maila eta ontasun hori. Sekzio irabazleak, orijinaltasun apartaz, euskarazko kazetaritzan gorputz eta leku propioak gihartu ditu marrazki-komiki laburraren saila jorratuz, euskarazko kazetaritzan sustraitik indar haundiz errotu bait du gainerako hizkuntzetako prentsa normalduan betidanik irismen haundiko izan den kazetari-marrazkilari iharduna. Sarituak bere marrazkietan sortutako pertsonaia bere eskutikoa izatetik, urte gutxiren buruan euskaldunentzat pertsonaia erreala izatera iritsi da, umore fin eta sarritan ironiko batez eguneroko bizitzaren gora-behera eta albisteen iturritik hartutakoak hausnartu eta

zeharretara begiraten azaldu dizkiğuna. Ezinbesteko erreferentzi gertatzen da gaur sekzio saritua euskarazko kazetaritzan.

Saritutako sekzioa: **"Zakilixut", Euskaldunon Egunkarian** argitaratzen dena.

Sekzioaren egile: **Antton Olariaga jauna.**

7.3. "Baloraziozko kazetaritza" ataleko saria, 400.000 pezetaz hornituta-koa. Alor hauxe da Sari honi izena eman dion Rikardo Arregi zenak kazetaritzaren esparruan zabal eta jori jorratu zuen jeneroa. Lehenago aipatu erizpideez gain, oraindik ere komenigarri deritzogu oinarrietako laugarrenak atal honetako sariari buruz dioena hitzezitz emanda gogorarazteari: "fenomeno puntual eta konkretuen azalpenetatik areago doazen artikulua izan beharko dute hauek, nahiz eta datuak ematen dituzten eta, beste zenbaiten artean, gertakizun konkretuetatik abiatuz egindako idazlanak izan. Sari hau erabakitzerakoan, Epaimahaiak oso kontutan hartuko ditu egileak aztegiari buruz egiten duen hausnarketa edo balorazio propioaren sakontasuna eta zorroztasuna." Horretaz gain, erabakiorra izan da saritutako egilearen idazkera iaio eta taupadatsua.

Saritutako artikulua: **"Ehiztariaren gaurko erotika", "El Diario Vasco"** egunkariaren **"Zabalik"** gehigarrian argitaratua 1.991ko apirilaren 17an.

Autorea: **Patziku Perurena jauna.**

7.4. "Erreportaia" ataleko saria, 400.000 pezetaz hornitutakoa. Oinarrieta-ko bostgarrenean atal honi dagokionez adierazitakoak bete-betean lotzen zaizkio saritutako lanari. Mitzezitz honela dio: "sari hau erabakitzerakoan Epaimahaiak besteak beste eta batez ere estiloa, orijinaltasuna, datu-bilketaren exhaustibotasuna eta zailtasuna hartuko ditu kontutan". Ezaugarri guztioriek betetzen ditu, zalantzarik gabe, aurten saritutako lanak. Erabakiorra izan da, bestetik, egileak erreportaiari eskaini dion kazetal tratamendu garbi eta trinkoa, nola baita ere saritutako lana eta egileak aurkeztutako gainerakoak egungo kazetalgintzan erreportaigintzaren eredu nabarmen gertatzea.

Saritutako erreportaia: "**«Jainko» bila**", "**El Diario Vasco**" egunkariaren "**Zabalik**" gehigarrian argitaratua 1.991ko martxoaren 6an.

Autorea: **Felix Ibargutxi jauna.**

Honaino, bada, III. "Rikardo Arregi" Kazetaritza Sariari dagokion azken erabakia, Epaimahaikide guztiok ontzat eman eta sinatu duguna.

Andoain, 1.991ko uztailak 13.

M. Pilar Collantes Ibáñez

Jesus Etxezarraga Zuluaga

Elixabete Garmendia Lasa

Josemari Otermin Urtizberea

Josefa Garzia Garmendia

Jon Unanue López